



## Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala – Consejo Sectorial para la Igualdad

<b>Deialdia egin duena</b> Convoca	<b>Donostiako Udala</b> Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
<b>Eguna, tokia eta ordua</b> Fecha, lugar y hora	<b>2021eko ekainaren 22an</b> / 22 de junio de 2021 <b>Udalbatza Aretoa, Udaletxea</b> / Salón de Plenos, Edificio Consistorial <b>17:00</b>
<b>Amaiera ordua</b> Hora de finalización	<b>18:50</b>

### GAI-ZERRENDA:

#### ORDEN DEL DÍA:

<p>1.- Hala badagokio, akta onartzea.</p> <p>2.- Erreparazioaren formazioaren balorazioa.</p> <p>3.- Monografiko proposamena, Arrats: gizarte bazterketa eta prostituten egoera.</p> <p>4.- Besterik.</p>	<p>1.- Aprobación de acta, si procede.</p> <p>2.- Valoración de la formación de reparación.</p> <p>3.-Propuesta monográfico Arrats: exclusión y situación de las prostitutas</p> <p>4.- Varios.</p>
---	---

### BILERAN PARTE HARTU DUTE:

#### HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

<b>KONTSEILUKO LEHENDAKARIA</b> PRESIDENCIA DEL CONSEJO	<b>PSE-EE: Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria</b> Concejala delegada de Igualdad, Solidaridad y Derechos Civiles
<b>TALDE ORDEZKARIAK</b> REPRESENTANTES POLÍTICOS	<b>POLITIKOEN GRUPOS</b> <b>1.- PSE-EE</b> <b>2.- Elkarrekin Donostia</b>

<b>HERRITARREN ELKARTEAK</b> <b>ETA, BERDINTASUN ARLOAN,</b> <b>GIZARTEAN GARRANTZI</b> <b>BEREZIA DUTEN</b> <b>KOLEKTIBOAK</b> ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD	<b>1.- ARRATS Elkartea</b> A <b>2.- ASADE Elkartea / Asociación</b> <b>3.- ASADE Sindikatua / Sindicato</b> <b>4.- Gipuzkoako Emakume Banatuen</b> <b>elkartea/ Asociación de Mujeres</b> <b>Separadas de Gipuzkoa</b> <b>7.-Mariren alabak</b> <b>8.-Plazandreok</b>
<b>Norbanakoak</b> Mujeres a título individual	1.- XXXX 2.- ----- 3.- -----
<b>EZIN ETORRIA ADIERAZI</b> <b>DUTE EDO EZ DIRA ETORRI</b> EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON	1.- EH Bildu 2.- EAJ- PNV 3.- PP 4.- GEHITU 5.- Elkartu 6.- ERNE 7.- Haurralde 8.- Intxaurrendoko emakume elkartea 9.- XXX
<b>UDAL TEKNIKARIAK</b> CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL	<b>Berdintasun Agentea / Agente de</b> <b>Igualdad</b>  <b>Atalaren burua / Jefa de Sección</b>
<b>PARTAIDETZAREN DATUAK</b> DATOS DE PARTICIPACIÓN	<b>Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialeko 9 kide</b> <b>eta 2 udal teknikari, idazkaritza tekniko lanetan.</b>  <b>Emakumezkoak / Mujeres = 9</b> <b>Gizonezkoak / Hombres = 0</b>  9 personas integrantes del Consejo Sectorial para la Igualdad y 2 representantes del equipo técnico municipal como secretaria técnica
<b>KONTSEILUKO IDAZKARITZA</b> SECRETARÍA DEL CONSEJO	<b>Berdintasun Bulegoa</b> - Negociado de Igualdad Okendo 9 / 943 48 34 68 / <a href="mailto:berdintasuna@donostia.eus">berdintasuna@donostia.eus</a>

## SAIOAREN BILAKAERA:

### DESARROLLO DE LA SESIÓN:

<b>1. Aurreko aktaren onarpena</b>  Aurreko akta onartu da.	<b>1. Aprobación del acta anterior</b>  Se aprueba el acta anterior.
<b>2. Erreparazioaren formazioaren balorazioa</b>  Erreparazioan prestakuntza kontseilukideei eta Gobernuko zinegotziei	<b>2. Valoración formación reparación.</b>  La formación en reparación se ha ofrecido a las integrantes del Consejo y concejales/es del

eskaini zaie. Parte hartzea ez da izan handia, baina bai interesgarria.

Kontseilukideetatik 6 kidek hartu dute parte lehenengo saioan; bigarrenean, berriz, 8k. Erreparazioa kontzeptu berria da, eta aurretik besteak argi izan behar dira: indarkeria matxista, emakumeen aurkako indarkeria, eta abar. Euskadiko berdintasun lege berrian ere erreparazioa landuko da, beraz, momentu ona da hausnartzeko. "Erreparazioa" IV Berdintasun Planean proiektu berezitua da, eta hau da lehenengo urratsa.

Asade sindikatuko kide batek denbora aldetik motz geratu dela adierazi du, eta elkarte asko falta zirela.

Elkarrekin Donostia: Egia / justizia /erreparazioa zikloa askotan puskatzen da. Ikusi behar dugu Kontseiluak zer egin dezakeen. Askok falta da justizia ekonomikoa lortzeko.

Arrats: erreparazio soziala dago, baina erasotzaileek ere erreparazioa egiten dute. Erasotzaileekin lan hori ez da egiten ari. Ematen duena baino gai korapilatsuagoa da. Askok aurreratu da, baina jarraitu egin behar da, eta agente gehiago inplikatu beharko lirake. Asistentzia faltari dagokionez, elkarteak gainezka daudela eta jarduera askotan parte hartzea ezinezkoa zaiela azpimarratu du. Elkarteen mugimendua ez da pentsatzeko eta prestatzeko denborarik izaten ari.

Berdintasun teknikariak esan du berdintasun zerbitzuek ere Arratsen sentazio bera dutela, gainezka daudela, eta berdin elkarteak. Agian, gaietan zentratzeko formulak pentsatu beharko lirake. Era berean, gogorarazi du prestakuntzan egindako lanaren laburpena bidaliko zaiela Kontseiluko kide guztiei.

Mariren alabak elkarteko ordezkariaren ustez, ikasturtea oso ondo egon zen, baina denbora gutxi geratu zen. Prestakuntzarekin jarraitzea espero du.

Norbanakoak ere balorazio positiboa egin du, eta formakuntza gehiago eskatu du.

PSEk gogorarazi du orain lege aldaketa bat egon dela tratatu txarren egileei seme-

Gobierno. La participación ha sido escasa, pero sí interesante.

Desde el Consejo han participado 6 miembros en la 1 sesión y 8 en la 2ª. La "reparación" es un concepto nuevo y debemos de conocer bien los que usamos a diario; violencia machista, violencia contra las mujeres, etc. En la nueva ley de igualdad de Euskadi también se trabajará la reparación, por lo que es un buen momento para reflexionar. La "reparación" tiene un proyecto específico en el IV Plan de Igualdad.

Del sindicato Asade se señala que se ha quedado corto y que faltaban muchas asociaciones.

Elkarrekin Donostia: dice que el ciclo verdad/justicia/reparación se rompe muchas veces. Tenemos que ver qué puede hacer el Consejo. Falta mucho para conseguir la justicia/reparación económica.

Arrats: Hay una reparación social, pero también hay una reparación por parte de los agresores. El trabajo con los agresores no se está haciendo. Es un tema más complicado de lo que parece. Se ha avanzado mucho, pero hay que seguir, y habría que implicar a más agentes. Sobre la falta de asistencia, subraya que las asociaciones están saturadas y ya no les es posible participar en muchas actividades. El movimiento asociativo no está teniendo tiempo de pensar ni de formarse.

La técnica de igualdad dice que también los servicios de igualdad tienen la misma sensación que Arrats, están saturados, e igual las asociaciones. Igual habría que pensar fórmulas para centrarnos en los temas. También recuerda que se enviará a todas las integrantes del Consejo el resumen de lo trabajado en la formación.

La representante de Mariren alabak valora que como toma de contacto el curso estuvo muy bien, pero se quedó escaso el tiempo. Espera que se siga con la formación.

Otra mujer a título individual también valora en positivo la formación que se ofertó y solicita seguir con esta línea.

Desde el PSE se recuerda que ha habido ahora una modificación legal para que se pueda suspender las visitas de las hijas /hijos a los maltratadores. Se están dando pasos.

La representante de Asade asociación dice que

alabenen bisitak bertan behera utzi ahal izateko. Pausoak ematen ari dira.

Asade elkarteko ordezkariak esan du nerabeekin harreman eredu berri eta desberdin bat lantzeko dagoela.

Elkarrekin Donostiak erantzun du Eskolae programa oso egokia dela horretarako, eta haurtzarotik hasi behar dela. Hala ere, gizartearen errealitatearekin kontrastatzen duten hezkuntza programa asko daude. Gaztekuetan eta kaleko hezitzaileekin lan egin behar da. Ahal den alde guztietatik heldu behar zaio gaiari.

Berdintasun teknikariak gogorarazi du III. Berdintasun Planetik Berdintasun eta Gazteria arloek elkarrekin lan egiten dutela gaztekuetan tailerrak emateko, eta, gainera, gaztekuetako begiraleek hezkidetzaren ikuspegitik lan egin dezaten lan egiten dela. Une honetan, Gazteriako teknikariek eta gaztekuetan lan egiten duten pertsonak prestakuntza jaso dute eta genero ikuspegia txertatuta dute, eta ildo horretatik jarraituko da lanean.

### 3. Monografiko proposamena, Arrats: prostituzioan ari diren emakumeen prekaritate egoera.

Arratsen prostituzioan ari diren emakumeek bizi duten errealitatea ezagutzeko beharra azaldu du. Pandemia egoeran egoera oso larriak azaleratu dira eta erregulazionismoa versus abolizionismoa eztabaidatik haratago egoera mahaigaineratzeko beharra nabarmendu du. Arreta jarri behar da haien egoeran; pobrezian, osasun-txartelik eta/edo erroldarik gabe, eta horrek dakarren eskubide urraketan, baliabideak ez eskuratzeagatik.

Plazandreak-eko ordezkariaren ustez, pobrezia feminizazioaz hitz egitea da. Nahi ez badugu ere, eztabaida teorikoarekin lotuta dago. Prostituziotik ateratzeko neurriak behar dira. Helburua emakumeen sexu esplotaziorik ez egotea izan behar du.

Arratsen gogorarazi du atzerritarren legea, gizarte-eredua eta abar aldatzen ez diren bitartean horrelako egoerak egongo direla. Jendeak edozer egiten jarraituko du, lapurretan,

está pendiente trabajar con los adolescentes un modelo nuevo y diferente de relaciones.

Elkarrekin Donostia responde que el programa Eskolae es muy adecuado para eso, y que hay que empezar desde la infancia. Sin embargo, hay muchos programas educativos que contrastan con la realidad de la sociedad. Hay que trabajar en los gaztelekus, y con educadoras de calle. Hay que abordar el tema desde todos los flancos posibles.

La técnica de igualdad recuerda que ya desde el III Plan de Igualdad se trabaja en conjunto desde las áreas de igualdad y juventud para dar talleres en los gaztelekus, y además, se trabaja para que el monitorado de gaztelekus trabajen desde la perspectiva coeducativa. En estos momentos, tanto las técnicas de juventud, como las personas que trabajan en los gaztelekus han recibido formación y tienen incorporada la perspectiva de género y se seguirá el trabajo en esa línea.

### 3. Propuesta monográfico: Arrats; Situación de precariedad de las mujeres que ejercen la prostitución.

Arrats expone la necesidad de conocer la realidad que viven, y ha aflorado por la pandemia, las mujeres que están ejerciendo la prostitución, más allá del debate regulacionismo versus abolicionismo. Hay que centrarse en su situación; pobreza, falta de tarjetas sanitarias y/o empadronamiento y la vulneración de derechos que eso acarrea por el no acceso a los recursos.

La representante de Plazandreak entiende que es hablar de la feminización de la pobreza. Aunque no queramos, está relacionado con el debate teórico. Tiene que haber medidas para sacarlas de la prostitución. Las medidas a abordar tienen que ver con tu concepción de la prostitución. El objetivo debe ser que no exista la explotación sexual de las mujeres.

Desde Arrats se recuerda que mientras no cambie la ley de extranjería, el modelo, etc... va a haber situaciones como éstas. La gente va a seguir haciendo lo que sea, robando, ejerciendo prostitución... para poder comer, y eso va a tener consecuencias: cárcel, estigma... Muchas no han ido a Servicios Sociales hasta la pandemia, cuando ya no tenían qué comer. Piden respeto, y les ha costado muchísimo pedir

prostituzioan... jan ahal izateko, eta horrek ondorioak izango ditu: kartzela, estigma... Asko ez dira Gizarte Zerbitzuetara pandemia arte joan, jada zer jan ez zuten arte. Errespetua eskatzen dute, eta asko kostatu zaie laguntzak eskatzea. Beste eztabaida bat ireki daiteke, eta eskubideak bermatuta izatea eskatu behar da.

Elkarrekin Donostiako ordezkariak esan du inork prostituitu behar ez duen mundu bat nahi duela, beste irtenbiderik ikusten ez duelako. Arazoa pobrezia eta prekaritatea sortzen duen sistema da. Erakundeak alternatibak eman behar dizkie, ibilbideak... Pandemiak agerian utzi ditu sistemaren lotsak. Baina gai teorikoa ezin da alde batera utzi, helburua argi izan behar dugu, hau da, pertsona horiek prostituitu behar ez izatea eta bizitza duina izateko eskubidea izatea.

PSEko ordezkariak esan du prostituzioan borondatez aritzen diren pertsonak gutxiengoa direla salerosketaren biktimekin alderatuta. Kontraesan asko daude. Laguntza bereziak eskaini behar zaizkie prostituzioan aritzen direnei? Jarduera arautu behar da? Zergatik da oraindik erakargarria prostituzioa? Ez dago formula magikorik, baina Kontseiluan eztabaidatzen jarrai daiteke eta aurrera egiten saiatu.

Arratssek erantzun du gaiari heldu behar zaiola. Haien jarduera hain da berezia, ezen eskubide asko (lan egiteko, erroldatzeko...) falta baitzaizkie, eta hori konpondu egin behar da. Lanean jarraituko dute. Biztanleriaren zati batek ez ditu eskubide jakin batzuk eskuratzen egiten duten jardueragatik. Alde batera utz dezagun nora joan nahi dugun, eta zentratu gaitezen zertan ari garen bitartean. Baldintza duinak eskaini behar zaizkie, baina ez berariazko laguntzarik. Hau ez da soilik kolektibo honentzat, beste askorentzat baizik. Behar bereziak dituzten kolektiboak dira, eta kontuan hartu behar dira.

Kontseiluko kide batek, maila indibidualean, esan du oso gai zaila dela Kontseilu honetan konponbidera

ayudas. Se puede abrir un debate diferente, y lo que hay que pedir es que tengan garantizados sus derechos.

La representante de Elkarrekin Donostia dice que ella aspira a un mundo donde nadie tenga que prostituirse porque no vea otra salida. El problema es el sistema generador de pobreza y precariedad. La institución tiene que darles alternativas, itinerarios... La pandemia ha dejado en evidencia las vergüenzas del sistema. Pero el tema teórico no se puede obviar, tenemos que tener claro el objetivo, que tiene que ser que estas personas no tengan que prostituirse, y que puedan tener derecho a una vida digna.

La representante del PSE dice que las personas que ejercen voluntariamente la prostitución son minoría respecto a las víctimas de trata. Hay muchas contradicciones. ¿Hay que ofrecer unas ayudas especiales para quienes ejercen la prostitución? ¿Hay que regular la actividad? ¿Por qué sigue siendo atractiva la prostitución? No hay fórmula mágica, pero en el Consejo se puede seguir debatiendo y tratar de avanzar.

Arrats responde que hay que abordar el tema. Su actividad es tan especial, que les faltan un montón de derechos (a trabajar, empadronamiento...), y eso hay que solucionarlo. Van a seguir ejerciendo. Hay una parte de la población que no accede a ciertos derechos por la actividad que ejercen. Dejemos a un lado adónde queremos ir, y centrémonos en qué hacemos mientras tanto. Hay que ofrecerles condiciones dignas, pero no una ayuda específica. Ésto no es sólo para este colectivo, sino para otros muchos. Son colectivos con necesidades especiales, que hay que tener en cuenta.

Una integrante del Consejo a nivel individual comenta que es un tema muy complicado para que este Consejo pueda llegar a una solución. Muchas mujeres internas en el servicio doméstico también sufren abusos y violaciones, trato vejatorio e inhumano. Se podría pedir un monográfico sobre eso, ya que es más abordable, ya que ellas están "legalizadas" y viven también en condiciones de esclavitud.

Arrats responde que las asociaciones del tema de cuidados llevan años colaborando, ya que la falta de derechos es un tema común. No es tan complicado.

Desde asociación Asade se pide que se evite el término "interna", ya que no es adecuado. La falta de derechos une. Pregunta a Arrats qué

iritsi ahal izateko. Etxeko zerbitzuan dauden emakume askok ere abusuak eta bortxaketak jasaten dituzte, tratu iraingarria eta ankerra. Horri buruzko monografiko bat eska liteke, landuagoa baita, emakumeak "legeztatuta" daudelako eta haiek ere esklabotza egoeran bizi direlako.

Arratsek erantzun du zaintzaren arloko elkarteek urteak daramatzatela elkarlanean, eskubide falta gai komuna baita. Ez da hain zaila.

Asade elkarteak "internak" terminoa saihesteko eskatu du, ez baita egokia. Amankomuneko gaia eskubidee falta dela. Arratsi galdetu dio ea zer eskumen duen udal batek pertsona horiei falta zaizkien eskubideak errazteko. Gaia oso konplexua eta garrantzitsua da.

Mariren alabak monografiko bat egitearekin ados agertu da.

Berdintasun zinegotziak gogorarazi du ezin izango dela prostituzioaren gaia bere osotasunean eztabaidatu, oso zabala delako, baina monografiko batean proposamen eraginkorrak egiten saia daiteke.

#### 4.- Besterik

Zaintza Kontseilua sortzeko eskaera:

Arrats Elkarteak jakinarazi du idazki bat erregistratu dutela Udalean, Zaintzen Udal Kontseilua sortzea eskatzeko.

Osoko Bilkuren Aretoaren irisgarritasuna:

Bestalde, gogorarazi du Elkartuk uko egin diola parte hartzeari irisgarritasunik izan arte, eta ulertu du Batzorde Iraunkorrean adostu zela Kontseilua beste espazio batera lekualdatzea.

Berdintasun zinegotziak azaldu du, baietz, Kontseilu batean arrapala matxuratuta egotea gertatu zela eta, protesta gisa, Osoko Bilkuren Aretoan egindako ekitaldietan gehiago ez parte hartzea erabaki zutela. Hala ere, plataforma konponduta dago, funtzionatzen du, eta saio bakoitza baino lehen egiaztatzen da. Osoko Bilkuren Aretoa irisgarria da eta, urtarriletik aurrera, igogailua zero kotan

competencia tiene un Ayuntamiento a la hora de facilitar los derechos que les faltan a estas personas. El tema es muy complejo y muy importante.

Mariren alabak se muestra de acuerdo con que haya un monográfico.

La concejala de Igualdad recuerda que no se va a poder debatir el tema de la prostitución en su globalidad, ya que es muy amplio, pero sí se puede intentar llegar a propuestas efectivas en un monográfico.

#### 4. Varios

*Solicitud de creación de un Consejo de Cuidados:*

Asociación Arrats informa de que han registrado un escrito en el Ayuntamiento para solicitar la creación de un Consejo Municipal de Cuidados.

*Accesibilidad del Salón de Plenos:*

Por otro lado, recuerda que Elkartu se ha negado a participar hasta que no haya accesibilidad, y entendió que en la Comisión Permanente se había acordado trasladar el Consejo a otro espacio.

La concejala de Igualdad explica que, efectivamente, en otro Consejo sucedió que la rampa estaba averiada, y en señal de protesta, ellas han decidido no participar más en actos realizados en el Salón de Plenos. Sin embargo, la plataforma está reparada, y funciona, y se comprueba antes de cada sesión. El Salón de Plenos es accesible, y a partir de enero se terminará la obra en el Ayuntamiento, y habrá



egongo da, arrapalarik gabe, Udaletxeko obra amaituko baita.

Asade elkarteko ordezkariak erantzun du Gizarte Ekintzako Kontseilua Ernest Lluch aretoan egiten dela orain, eta Kontseiluak ere oztopoak kentzeko konpromisoa har dezakeela.

Zinegotziak erantzun du lekuz aldatzeak kostu bat duela, beste leku bat alokatu behar delako, eta Osoko Bilkuren Aretoa irisgarria dela azpimarratu du; eta bilera aurretik ikuskatu eta bermatzen dela plataforma ondo dabilela.

Arratsek Asadek esandakoa babestu du, eta gogoratu du Elkartuk esaten duela plataforma askotan hondatzen dela, eta behin baino gehiagotan gertatu zaiola ezin sartu izana.

Emakume Bananduen ordezkariak esan du ez direla gauzak hainbeste korapilatu behar, eta Elkartuk egunean bertan galde lezakeela ea funtzionatzen duen, eta horrela ziurtatu. Asade sindikatuak esan du etortzeko eskubidea dutela, galdetzeko deitu behar izan gabe.

Jane Jacobs pasealekua Ekialdeko barrutian:

Plazandrokeko ordezkariak gogorarazi duenez, larunbatean Emakumeak eta Hiria Foroak Jane Jacobs ibilbidea egingo du Ekialdeko Barrutiko kaleetan zehar, emakumeen izenak emanaz eta haien istorioak kontatuz.

Bestalde, Plazandreak elkarteak jakinarazi du ekainaren 28an Emakumeen Etxean geratu direla 18:30ean, manifestazioan parte hartzeko.

18:50ean amaitu da Kontseilua.

un ascensor a cota cero, sin rampa.

La representante de asociación Asade responde que el Consejo de Acción Social se ha trasladado a la sala de Ernest Lluch, y que este Consejo también podría comprometerse a eliminar obstáculos.

La concejala responde que cambiarlo de ubicación tiene un coste, ya que hay que alquilar otro emplazamiento, e insiste en que el Salón de Plenos es accesible y antes de las reuniones se comprueba que están en funcionamiento.

Desde Arrats apoyan lo dicho por Asade, y recuerda que Elkartu dice que la plataforma se estropea a menudo, y le ha pasado varias veces que no ha podido acceder.

La representante de Mujeres Separadas dice que no hay que complicar tanto las cosas, y que Elkartu podría preguntar el mismo día si funciona, y así asegurarse. Sindicato Asade dice que deben tener derecho a venir sin tener que llamar para preguntar.

*Paseo Jane Jacobs por Distrito Este:*

La representante de Plazandreak recuerda que el sábado el Foro Mujeres y Ciudad hace un recorrido Jane Jacobs por las calles del Distrito Este con nombres de mujeres, contando sus historias.

*28 de junio:*

Por otra parte, desde Plazandreak se informa de que el 28 de junio se ha quedado en la Casa de las Mujeres a las 18:30, para incorporarse a la manifestación.

No habiendo más temas que tratar, finaliza el Consejo a las 18:50.